ERABAKIA, Uren Partzuergoa, Hornidura eta Osasunbidearena, Hondakin Uren Muskizeko Tratamendu Estazioa zabaltzeko Egitasmoari dagozkion lanak kontratatzeko Lehiaketarako deia egiten duena. 7121

RESOLUCION del Consorcio de Aguas, Abastecimiento y Saneamiento por la que se anuncia Concurso para contratar las obras del Proyecto de ampliación de la Estación de Tratamiento de Aguas Residuales de Muskiz. 7121

# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, Garraio eta Bide Azpiegutura Departamenduko Garraio eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusiko idazkari lanpostua izendapen librearen bidez hornitzeko deialdiarena. 7122

IRAGARPENA, Ogasun eta Finantza Departamenduko Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusiaren idazkari lanpostua izendapen librearen bidez hornitzeko deialdiarena. 7123

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

ANUNCIO de la convocatoria para la provisión, mediante libre designación, de 1 puesto de Secretaria/o de la Dirección General de Transportes y Planificación, adscrito al Departamento de Transportes e Infraestructuras Viarias. 7122

ANUNCIO de la convocatoria para la provisión, mediante libre designación, de 1 puesto de Secretaria/o de la Dirección General de Política Fiscal, adscrito al Departamento de Hacienda y Finanzas. 7123

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HERRIZAINGO SAILA

**2738**

AGINDUA, 1991ko irailaren 2koa, Herrizaingo Sailburuarena, konbinazio aleatoriak izenaz ezagutzen den joku-modalitatea arautzeari buruzkoa.

Jakina denez, Konbinazio Aleatorioak izenaz ezagutzen den jokuaren modalitate jakin batzutan bezeroek eta erabiltzaileek parte hartuz, ondasunak eta zerbitzuak sustatzeko hainbat kanpaina egiten dira, bai merkataritza arloan eta bai enpresaritza munduan ere. Hori horrela, bidezkoa da, modalitate horiekiko aparteko ardura izatea, era honetan, aipatu den ihardun horren kontrola Administrazioari ihes egin ez dakion eta agiango partaideen eta onuradunen eskubideak zaindu ahal izateko. Aipatu den joku modalitate hori araututa ez dagoenez eta geroz eta gehiago hedatzen ari denez, derrigorrezkoa da, gai honi buruzko sektore mailako arauak onartzea. Horiek horrela, Jokuaren Euskal Kontseiluak eman duen eta bete beharrekoa den txostenean ezartzen denaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Eremua eta Xedea.

1. Euskal Autonomi Elkartearen eremu barruan, osoan edo zatitan egin daitezen Konbinazio Aleatorioak arautzea da Agindu honen xedea.

2. Zozketa bidez egiten den, produktu edo zerbitzu baten publizitatea egitea xedetzat duen eta publizitataren gai den ondasuna edo zerbitzua kontsumitzearen

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**2738**

ORDEN de 2 de setiembre de 1991, del Consejero de Interior por la que se regula la modalidad de juego denominada combinaciones aleatorias.

Es un fenómeno constatado en el ámbito comercial y empresarial la proliferación de campañas de promoción de bienes y servicios a través de participaciones de los clientes y usuarios de los mismos en determinadas modalidades de juego conocidas como Combinaciones Aleatorias, cuyo desarrollo merece una específica atención al objeto de evitar una falta de control de la actividad referida por parte de la autoridad administrativa que, en todo caso, preserve los derechos de los posibles participantes y beneficiarios. La ausencia de regulación de la modalidad de juego referida y su progresiva implantación hace inevitable la aprobación de una norma sectorial sobre esta materia. Por ello, y con el informe preceptivo del Consejo Vasco de Juego,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Ambito y Objeto.

1. Es objeto de la presente Orden la regulación de las Combinaciones Aleatorias que se celebren, total o parcialmente, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Las Combinaciones Aleatorias son una modalidad de juego a través de sorteo que, con fines estrictamente publicitarios de un producto o servicio, y teniendo

kontraprestazioa duen joku modalitate bat dira Konbinazio Aleatorioak, diruzko, espeziezko edo zerbitzu bidezko sariak eskaintzen direla ohizko kosteari gora eragin gabe.

*2. atala.*– Eskuduntza.

Herrizaingo Saileko Joku eta Ikuskizun Zuzendariak du eskuduntza Agindu honetan ezartzen den prozeduraren arabera, joku modalitate honetarako administrazio baimena emateko.

*3. atala.*– Eskegileak.

1. Honako hauek eskatu ahal izango dute Konbinazio Aleatorioetarako baimena, dagozkien erregistroetan inskribatuta egon daitezenaren baldintzapean: Merkataritza, industria edo zerbitzu mailako lana burutzen duten pertsona fisiko edo juridikoek, aldikako argitalpenetarako enpresa editorialek eta estatu, autonomi edo lurralde historiko mailako eremua hartzen duten kreditu, finantzaketa edo aurrezki erakundeek.

2. Konbinazio Aleatorioaren xede publizitarioak, baimen eskegileak burutzen duen merkataritza, merkantil edo industria mailako ihardunarekin izan beharko du lotura.

*4. atala.*– Eskabideak formaltzea.

1. Honako hauek jaso behar dira gutxienez baimena eskatzeko idazkian:

a) Erakunde sustatzailearen nortasuna.

b) Identifikazio fiskalerako zenbakia.

c) Sustapenaren lurralde eremua.

d) Erabiltzaileei edo bezeroei partizipazioak emateko prozedura edo, hala behar izan dadinean, emitituko diren papeleten kopurua eta ezaugarriak eta bai horiek banatzeko modua ere.

e) Saria emateko erabiliko den metodoari buruzkoa zehaztasunak. Konbinazio Aleatorioa, beste errifa edo zozketa modalitate batzurekin konbinatuz egin dadinean, dagokion erakundearen baimena aurkeztu beharko da eta emitituko diren zenbakien guztirakoa ezin izango da erakunde horiek finkatutakoa baino handiagoa. Txikiagoa izatea gertatuz gero, eman ez diren sariak esleitzeko egingo den osagarrizko zozketaren modalitatea zehaztu beharko da.

f) Eskaintzen diren sarien zerrenda zehatza, horien balioa eta depositatuta, ikusgai edo ingresatuta daudeneko lekua edo lekuak aditzera emanez.

g) Konbinazio Aleatorioaren garapenaren gardentasuna bermatzeko, erakunde sustatzaileak hartuko dituen neurrien deskribapena.

h) Sustapenari hasiera eta amaiera emango zaioneko egunak.

i) Erakunde sustatzaileak, hala behar izan dadinean, gauzatuko duen publizitatearen deskribapena.

*5. atala.*– Agiriak.

1. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Konbinazioa Aleatorioaren baimena eska dezatenek:

a) Erakundea sortze eskrituraren lekukoa eta erakunde eskegileari buruzko estatutu sozialak.

b) Eskabidea izenpetzen duenak erakunde sustatzailearekiko duen ordezkaritzaren kreditapena.

como contraprestación el consumo del bien o servicio objeto de publicidad, ofrece sin incremento alguno de su coste ordinario, determinados premios en metálico, especies o servicios.

*Artículo 2.*– Competencia.

El otorgamiento de las autorizaciones administrativas relativas a esta modalidad de juego será competencia del Director de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior, con arreglo al procedimiento establecido en la presente Orden.

*Artículo 3.*– Peticionarios.

1. Podrán solicitar la autorización para Combinaciones Aleatorias aquellas personas físicas o jurídicas dedicadas al comercio, industria o sector servicios, empresas editoras de publicaciones periódicas y entidades de crédito, financiación o ahorro de ámbito estatal, autonómico o de territorio histórico, siempre que figuren inscritas en los registros correspondientes.

2. La finalidad publicitaria de la Combinación Aleatoria deberá tener relación con la actividad comercial, mercantil o industrial del peticionario de la autorización.

*Artículo 4.*– Formalización de solicitudes.

1. En el escrito de solicitud de autorización deberá hacerse constar, cuando menos, lo siguiente:

a) Identidad de la entidad promotora

b) Número de identificación fiscal

c) Ambito territorial de la promoción.

d) Procedimiento de asignación de participaciones a los usuarios o clientes o, en su caso, número y características de las papeletas a emitir y forma de distribución de las mismas.

e) Especificación del método a utilizar para la asignación del premio. Cuando la Combinación Aleatoria se celebre en combinación con otras modalidades de rifas o sorteos deberá adjuntarse la autorización del organismo correspondiente, y el total de números que hayan de emitirse no podrá ser superior al fijado por los mismos. En caso de ser inferior, se especificará la modalidad de sorteo complementario a celebrar para la adjudicación de los premios no otorgados.

f) Relación detallada de los premios que se ofrecen, con expresión de su valor, así como el lugar o lugares en que se encuentren depositados, expuestos o, en su caso, ingresados.

g) Descripción de las medidas que la entidad promotora vaya a adoptar para garantizar la transparencia en el desarrollo de la Combinación Aleatoria.

h) Fecha del inicio de la promoción y de su terminación.

i) Descripción de la publicidad a realizar, en su caso, por la entidad promotora.

*Artículo 5.*– Documentación.

1. Los peticionarios de autorización de la Combinación Aleatoria deberán acompañar a las solicitudes los siguientes documentos:

a) Testimonio de la escritura de constitución y estatutos sociales debidamente inscritos de la entidad solicitante.

b) Acreditación de la representación de la entidad promotora que ostenta quien suscribe la solicitud.

c) Sarien jabetza kreditatuko duten kontratu, faktura, titulu edo agirien ale bat. Ondasun higiezinak izan daitezenean, Jabetzaren Erregistroak eman eta eskabidea egiten duen erakundearena dela ondasun hori erregistroan jasota dagoela, ondasunaren deskribapena jaso eta kargarik ez duela kredita ditzan ziurtagiria.

d) Sariak eskudiruzkoak izanez gero edo diruarekiko duen baliokidetasunaren aipamen adierazia egiten baldin bada, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Nagusiaren aurrean formaldutako abala, balore horri edo eskudiru horri dagokiona.

e) Ogasun higiezinen zozketa egin dadinean, ondasun horiek Konbinazio Aleatorioa sustatzen duen erakundearenak ez baldin badira edo dagokion Erregistroan horren izenean inskribatuta ez baldin badaude, erosketarako aukeraren kontratua aurkeztu beharko da prezio eta guzti eta balore horri dagokion abala formaldu beharko da Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Nagusiaren aurrean.

2. Aurreko apartaduan ezarri denaren kaltetan gabe, Administrazioak, beharrezkotzat jo ditzan informazioak eta agiriak eskatu ahal izango dizkio erakunde eskegileari.

*6. atala.*– Baimena eskatzeko epea eta prozedura.

1. Konbinazio Aleatorioari hasera eman baino hilabete lehenago aurkeztu beharko dira eskabideak Herrizaigno Sailaren Joku eta Ikuskizunen Zuzendaritzan. Honek, espedientea aztertu ondoren, baimena emango du edo ukatu egingo du, eskabidearen gai izan den baimenari buruzko arrazoi eta guzti.

2. Baimenari buruzko erabakian, honako hauek jaso behar dira derrigorrez: Baimenaren titularra, jokuari hasiera eta amaiera emango zaioneko eguna, zozketa eguna eta, hala behar izan dadinean, sarien balioa. Inorengana ezina izango da baimen hori eta, ondorioz, nahiz kobratuz, nahiz dohan, norbaiti uztea debekatuta gelditzen da.

3. Konbinazio Aleatorioaren baldintzak aldatzea, Joku eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren baimenaz bakarrik egin ahal izango da. Zozketarako baimena ematea edo sariaren gai izan den zenbakia finkatzeko sistemarako baimena, ezin egin ahal izango da sekula sarien banaketari hasiera eman ondoren edo sariaren finkapena beste errifa edo zozketa modalitate batzurekin konbinatuz egin dadinean.

4. Indarrean dagoen Administrazio Prozeduraren Legean ezartzen dena aplikatuko da espedientearen izapideak egiterakoan, Agindu honetan ezartzen ez direnei dagozkienetan.

*7. atala.*– Zigor erregimena.

Agindu honetan ezartzen direnen aurkako legehausteei, Administrazioak, Joku arloari dagozkionetan dituen zigor-ahalmenei buruz indarrean dauden arauetan ezartzen direnen araberako zigorrak ezarriko zaizkie.

c) Ejemplar de los contratos, facturas, títulos o documentación acreditativos de la propiedad de los premios. Si se tratase de bienes inmuebles, certificación expedida por el Registro de la Propiedad correspondiente que acredite la titularidad registral del bien a favor de la entidad solicitante, en la que se inserte su descripción y la inexistencia de cargas o gravámenes sobre el mismo.

d) Si los premios fuesen en metálico o se hiciere mención expresa a una equivalencia en dinero, aval por la cuantía de dicho valor o metálico, formalizado ante la Hacienda General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) En el caso de sorteos de bienes inmuebles, si los mismos no fueran propiedad de la entidad que promueve la Combinación Aleatoria o no estén inscritos a su nombre en el Registro correspondiente, deberá adjuntarse el contrato de la opción de compra con expresión del precio, debiéndose formalizarse aval por dicho valor ante la Hacienda General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Sin perjuicio de lo previsto en el apartado anterior la Administración podrá recabar de la entidad solicitante toda la información y documentación que entienda necesaria.

*Artículo 6.*– Plazo y procedimiento de autorización.

1. Las solicitudes deberán presentarse con una antelación mínima de un mes a la fecha prevista de inicio de la Combinación Aleatoria ante la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior, la que a la vista del expediente dictará la oportuna resolución, concediendo o denegando, en su caso, motivadamente la autorización solicitada.

2. En la resolución de autorización constará inexcusablemente el titular de la misma, la fecha de inicio y finalización del juego, la fecha del sorteo, en su caso, y la valoración de los premios, teniendo dicha resolución carácter intransmisible y quedando, en consecuencia, prohibida su cesión a título oneroso o gratuito.

3. La modificación de las condiciones de la Combinación Aleatoria sólo será posible por autorización de la Dirección de Juego y Espectáculos. En todo caso la autorización de un sorteo o del sistema de determinación de número premiado nunca podrá autorizarse cuando se haya iniciado el reparto de las participaciones o cuando la determinación del premio se hiciere en combinación con otras modalidades de rifas o sorteos.

4. En la tramitación del expediente será de aplicación, en lo no previsto en esta Orden, la vigente Ley de Procedimiento Administrativo.

*Artículo 7.*– Régimen Sancionador.

Las infracciones a lo previsto en la presente Orden se sancionarán conforme a lo previsto en la normativa vigente relativa a potestad sancionadora de la Administración en materia de Juego.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Joku Katalogoa onartzen deneko 1979ko urriaren 9ko Aginduan aipatzen diren ihardunak gehiagotu egiten dira Euskal Autonomi Elkartearen eremuan, Konbinazio Aleatorioa izenaz ezagutzen den modalitatea sartzen dela Katalogo horretan Agindu honetan ezartzen diren arauen arabera.

AZKEN XEDAPENA

EHAAn argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko irailak 2.

Herrizaingo Sailburua,
JUAN M.ª ATUTXA MENDIOLA.

DISPOSICION ADICIONAL

En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco se amplían las actividades previstas en la Orden de 9 de Octubre de 1979 por la que se aprueba el Catálogo de Juegos, incluyéndose en el mismo la modalidad de juego denominada Combinación Aleatoria conforme a la regulación contenida en la presente Orden.

DISPOSICION FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el B.O.P.V.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de setiembre de 1991.

El Consejero de Interior,
JUAN M.ª ATUTXA MENDIOLA.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

OSASUN SAILA

2739

479/1991 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Osakidetzako Goi Kargudun batzuk euren kargua utz dezatela xedatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak bere 18. atalekoj) idazatian eta 29. atalean eta «Osakidetzari» buruzko maiatzaren 19ko 10/1983 Legeak bere 3. ataleko 2.h) idazatian xedatzen dutenarekin bat etorriz, Osasun Sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1991ko abuztuaren 30ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Osakidetzaren egitura berria dela eta, Erakunde horretako Goi Kargudun batzuk euren kargua utz dezatela. Hona hemen zerrenda:

– Luis Hernández Sánchez jaunak, Osasun Kudeaketarako Zuzendari kargua.
– Gorka Torrealday Moreno jaunak, Ekonomi Kudeaketa eta Administraziorako Zuzendari kargua.

*2. atala.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak Dekretu honek.

Donostia-San Sebastián, 1991ko abuztuak 30.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun Sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2739

DECRETO 479/1991, de 30 de agosto, por el que se dispone el cese de Altos Cargos del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18, apartado j), y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y en el artículo 3, apartado 2.h), de la Ley 10/1983, de 19 de mayo, de «Servicio Vasco de Salud/Osakidetza», a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el día 30 de agosto de 1991,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Cesar, como consecuencia de la nueva estructura del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, a los Altos Cargos de dicho Organismo que a continuación se relacionan:

– D. Luis Hernández Sánchez, como Director de Gestión Sanitaria.
– D. Gorka Torrealday Moreno, como Director de Gestión Económica y Administración.

*Artículo 2.*– El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 30 de agosto 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.